



**Oñatiko Udala**

## **OÑATIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN BEREZIA (PERCO) IZENEKO DOKUMENTUA EGUNERATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA.**

Kontratuaren xedea da Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCO) izeneko dokumentua eguneratzeko zerbitzua ematea.

### **2. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIBAPENA.**

Oñatiko gaur egungo PERCOa 2005. urtean idatzi zuen IKEI enpresak.

Eusko Jaurlaritzaren aholkatzen duen moduan, PERCOak onartu eta zazpi urtera eguneratu egin behar dira. Bestetik, Oñatiko merkataritzan eragiten duten inguruabarrak sakon aldatu dira Oñatiko PERCOa idatzi zenetik hona. Horregatik guztiagatik, behar-beharrezkoa da aipatutako PERCOa gaurkotzeko lanei ekitea.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak diruz lagunduko du Oñatiko PERCOa gaurkotzeko lana.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2012ko ekainaren 6an Agindu bat eman zuen Hiri Merkataritzaren Lankidetzeta, Dinamizazio eta Lehiakortasunerako zonako estrategiak sustatzeko laguntzen programa arautzen duena; horrenbestez, agindu horren arabera, kontratuaren xede izango den dokumentuak honako eduki hauek jaso beharko ditu gutxienez:

Hasierako diagnostikoa.

Udalerriko eta eskualdeko identifikazio-parametroen azterketa.

Zonako merkataritza-azterketa; aurreko Percoa egin zenetik hona udalerriko eta eskualdeko merkataritza nola garatu den barne.

Zonako espazio-azterketa.

Udal-hornidurako sistemen azterketa, salgaien zamalanei buruzko ordenantzen gaineko alderdiak barne.

Eskaeraren azterketa.

Behin betiko diagnostikoa.

Jardun-proposamenak, honako hauek zehaztuta: helburuak, ekintzak, epeak, eta jardun horiek gauzatzea ahalbidetuko duten adierazleak.

### **3. PROIEKTUAREN GERENTZIA.**

PERCOaren gaurkotze-dokumentua idazteko lanen gerentzia OñatikoUdalak horretarako izendatuko dituen Udal Arduradun eta Teknikoek eramango dute, eta Udalaren ordezkari gisa jardungo dute. Gerentzia lanak gainbegiratzeaz eta dokumentua idazteko oinarrizko irizpideak zehazteaz arduratuko dira.

### **4. KONTRATUAREN PREZIOA.**

Kontratuaren prezioa hau da: HOGEITAMAR MILA EURO (30.000 euro), gehi BEZ. (Kopuru hori lizitatuzaileek beherantz hobetu dezakete eskaintzetan).

Prezio horren barruan sartuta daude dokumentua osorik eta zuzentasunez idazteko beharrezko lan guztiak. Lizitatuzaileak honela aurkeztu beharko du dokumentua: lau ale paperezko euskarrian, DIN formatuan, Euskaraz eta Gazteleraz, eta bi ale euskarri informatikoan, CDan, Udalak erabiltzen dituen programa eta bertsio informatikoetan (testua WORD\*.doc).

Bukaeran, azterlanaren 2 azalpen publikoa egitea, bata herriko merkatariei eta bestea, orokorrean, herritarrei, prezio honen barnean sartuko litzateke.

Zerbitzua ematek ondorioztatu daitezkeen gastu eta zerga guztiak, balira, prezio horretan sartuta daudela ulertuko da.

### **5. BURUTZEKO EPEA.**

Kontratu-xedeko lanak burutzeko epea LAU HILABETEKOA izango da. Burutzeko epe osoa kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

### **6. MEMORIA TEKNIKOA.**

Lizitatuzaileek Memoria Tekniko labur-zehatz bat aurkeztuko dute, gehienez ere 10 orrikoa (DIN A4, alde bietatik), eta bertan honako atal hauek errespetatu beharko dira hertsiki:

1.- Proposatutako dokumentuaren eskema garatzea.

2.- Plegu-xedeko lanen garapena aurreikusten duen programa. Bertan sartuta egongo dira, gutxienez, garatu beharreko fase eta lan guztiak adieraziko dituen barra-diagrama bat, eta haien denboralizazioa.

Aurkeztutako memoriak aurrez esandako orri-kopurutik gora izanez gero, hori arrazoi nahikoa izango da batera punturik ez emateko memoria teknikoari dagokion balorazio-irizpenean.

Memoria Teknikoaz gain, honako informazio hau ere erantsi beharko du:

3.- Zerbitzua ematearen ardura izango duten langile teknikarien zerrenda; bertan, teknikari bakoitzak zein titulazio duen eta zein urtetan lortu zuen jaso beharko da. Horretaz gain, zerbitzuaren ardura izango duten langile teknikariek eta baita ere herrian bertan datu bilketa egingo duenaren Euskara maila (EGA edo PL3) adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

4.-Ikerketaren arloan, enpresak egin eta Udalak interesgarritzat jo ditzakeen ekarpenak.

## **7. UDALAK EMANGO DION DOKUMENTAZIOA**

Oñatiko PERCOaren eguneratze-dokumentua idazteko, Udalak adjudikazio-hartzaileari orain indarrean dagoen PERCOa emango dio.

Adjudikazio-hartzaileak, Udalak emango dion dokumentazioa erabiltzerakoan, kontratu-xede hau betetzeko baino ezingo du erabili, eta bere gain izango da dokumentazioa gordetzeko ardura; horrenbestez, adjudikazio-hartzaileak erantzun beharko du dokumentu horiek oker erabili, hondatu edo galduz gero. Betebehar hori bete ezean, hortik erator daitezkeen kalte-ordain guztiak ordaindu beharko dizkio Udalari.

## **8. ALDIZKAKO INFORMAZIOAK.**

Gutxienez HAMABOST EGUNEAN BEHIN adjudikazio-hartzaileak, dokumentua idazteko ardura duenaren bidez, udaletxeko eraikinean bertan puntu-puntu informatzioa emango dio Udalari kontratu-xedeko lanen jardunari eta garapenari buruz. Horri dagozkion joan-etorrien eta dieten gastuak lizitazio-zenbatekoaren prezioan sartuta daudela ulertuko da.

Era berean, Udalak bisitaldiak egin ahal izango ditu enpresa adjudikazio-hartzailearen instalazioetara, egiten ari den lana gainbegiratzeko helburuz.

## **9. DOKUMENTUA IDAZTEKO BEHARREZKO BAIMENAK.**

Dokumentua idazteko behar dituen baimenak lortzeko, enpresa adjudikazio-hartzaileak beharrezko gestioak egin beharko ditu, bai enpresa hornitzaileen aurrean, bai administrazio eskudunen aurrean, nahiz eta eskaera formalak Udalak berak bete baditu ere.